



Aramaioko landa-guneen Plan Berezia: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola

Plan Especial de los núcleos rurales de Aramaio: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri y Zabola

ARAMAIO

ARAMAIO

Espedientea: 1HI-026/25-P08

Expediente: 1HI-026/25-P08

SILVIA MARTÍNEZ DE UBAGO BERMEJO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO ARABAKO HIRIGINTZA PLANGINTZAKO ATALEKO IDAZKARIA

SILVIA MARTÍNEZ DE UBAGO BERMEJO, SECRETARIA DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE ÁLAVA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

ZIURTATZEN DUT: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Arabako Hirigintza Plangintzaren Atalak maiatzaren 4an egindako 2/2026 Bilkuran, kideen gehiengo osoa osatzen zuten bertaratuek aho batez erabaki hau hartu zuten:

CERTIFICO que en la Sesión 2/2026, celebrada por la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, el 4 de mayo, se adoptó por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, el siguiente acuerdo:

A.- Lurralde antolamenduari dagokionez:

A.- En materia de Ordenación del Territorio:

I.- Eragozpenik ez jartzea Aramaio udalerriko (Araba) "Aramaioko landa-guneen Plan Berezia: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola" espedienteari, hurrengo araudira egokitzeari dagokionez: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru-organoen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legea eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eskumenei dagokienez.

I.- No poner objeción al expediente de "Plan Especial de los núcleos rurales de Aramaio: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri y Zabola" del municipio de Aramaio (Álava), en lo que respecta a la adecuación a los Instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, a los aspectos señalados en la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y a la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en lo referente a las competencias de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco al respecto.

Hala ere, honako hauek zuzendu beharko dira:

No obstante, se deberán subsanar:

- Egungo eraikinak handitzeko aukerari buruzko edozein aipamen ezabatu beharko da dokumentuan.
- Dokumentuen euskarazko eta gaztelaniazko bertsioren artean antzemandako inkongruentzia guztiak ezabatu beharko dira, bai hirigintza-arau orokorrenak, bai partikularrenak.

- Se deberá eliminar cualquier mención en el documento a la posibilidad de ampliación de las edificaciones existentes.
- Se deberán eliminar todas las incongruencias detectadas entre las versiones en euskera y castellano de los documentos, tanto de las Normas Urbanísticas Generales como de las Particulares.





- Zuzendu egin beharko dira presako neurriei buruzko 108/2008 Dekretuari buruzko aipamen guztiak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua aipatu nahi denean.
- Araudi Partikularraren dokumentuan, Uribarriko landa-guneari dagokionez, Plan Bereziaren Araudi Orokorren 11.3 artikulua betez, non ezartzen baita etxebizitza berria hartuko duen lurzati bakoitzaren gehieneko eraikigarritasuna 360 m²-koa dela, landa-gunearen eraikigarritasunaren gehieneko gehikuntza 1.080 m²-ra mugatu beharko da, adierazitako 1.800 m²-en ordean.
- Se deberán corregir todas las referencias al "Decreto 108/2008, de medidas urgentes", cuando se quiera mencionar el Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- En el documento de la Normativa Particular, en el núcleo rural de Uribarri, en cumplimiento del artículo 11.3 de la Normativa General del Plan Especial, donde se fija que la edificabilidad máxima a cada parcela receptora de nueva vivienda es de 360 m², se deberá limitar el incremento máximo de la edificabilidad del núcleo rural a 1.080 m², en lugar de los 1.800 m² señalados.

B.- Nekazaritzaren arloan:

Arabako Foru Aldundiko Jasangarritasuna, Nekazaritza eta Natura Ingurunea Saileko Nekazaritza Zuzendaritzaren txostena ikusita, espedienteari eragozpenik ez jartzea.

Hala ere, landa-bidieren bati eragiten dion edozein jarduketa gauzatu aurretik, dagokion txosten teknikoa eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuari.

C.- Ur arloei dagokionez:

URA Uraren Euskal Agentziaren txostena ikusita, espedienteari eragozpenik ez jartzea.

Hala ere, 1.4.2 *Azpiegiturak. Hornidura eta saneamendua* planoetan zuzendu beharko da Arexola, Arriola eta Suña landa-guneetako saneamendu-sareak, hasierako onarpeneko dokumentuan jaso bezala.

D.- Gogoeta orokorra:

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 3. puntuan Batzorde honi buruz xedatutakoaren ondorioetarako, txosten honetan jasotako baldintzak sartu ondoren, espedientea

B.- En materia de Agricultura:

A la vista del Informe de la Dirección de Agricultura del Departamento de Sostenibilidad, Agricultura y Medio Natural de la Diputación Foral de Álava, no poner objeción al expediente.

No obstante, con carácter previo a la ejecución de cualquier actuación que afecte a algún Camino Rural, se deberá solicitar el correspondiente informe técnico al Servicio de Desarrollo Agrario de la Diputación Foral de Álava.

C.- En materia de Aguas:

A la vista del Informe de la Agencia Vasca del Agua - URA, no poner objeción al expediente.

No obstante, se deberá corregir en la serie de planos 1.4.2 *Infraestructuras. Abastecimiento y saneamiento* las redes de saneamiento de los núcleos rurales de Arexola, Arriola y Suña, tal y como se había recogido en el documento aprobado inicialmente.

D.- Consideración general:

A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe, el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad



behin betiko onartu ahal izango da, Batzorde honek berriro txostena egin beharrik gabe.

de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

E.- Espedientea behin betiko onartzeko eskumena duen organoari honako agiri hauek bidaltzea (ziurtagiri honi erantsi zaizkio):

E.- Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente la siguiente documentación, que se anexa a la presente certificación:

- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzako Lurralde Antolamendu eta Plangintza Zerbitzuaren txostena. (I. eranskina)

- Informe del Servicio de Ordenación del Territorio y Planeamiento de la Dirección de Planificación Territorial del Gobierno Vasco. (Anexo I)

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Arabako Hirigintza Plangintzako Atalaren txosten-proposamena, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzak emana. (II. eranskina)

- Propuesta de informe de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, emitida por la Dirección de Planificación Territorial del Gobierno Vasco. (Anexo II)

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzaren txostena. (III. eranskina)

- Informe de la Dirección de Agricultura de la Diputación Foral de Álava. (Anexo III)

- Uraren Euskal Agentziaren (URA) txostena. (IV. eranskina)”

- informe de la Agencia Vasca del Agua (URA). (Anexo IV)”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut elektronikoki, bilkura honi dagokion akta onartu baino lehen, Vitoria-Gasteizen.

Y para que así conste, expido y firmo electrónicamente este certificado, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz.



Elektronikoki sinatua.

Firmado electrónicamente.

ETXEIBITZA ETA HIRI AGENDA
SAILALurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren
Saillburuordetza
Lurralde Plangintzaren ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
AGENDA URBANAViceconsejería de Planificación Territorial y Agenda
Urbana
Dirección de Planificación Territorial

ESPEDIENTEA / EXPEDIENTE	1HI-026/25-P08
GAIA / ASUNTO	Aramaioko landa-guneen Plan Berezia: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola Plan Especial de los núcleos rurales de Aramaio: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri y Zabola
UDALERRIA / MUNICIPIO	ARAMAIO
LURRALDE HISTORIKOA/ TERRITORIO HISTÓRICO	ARABA / ÁLAVA
INDARREAN DAGOEN UDAL-PLANGINTZA	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, 2017ko abenduaren 14an onartua. Indarrean sartzea: BOTHA, 147. zk. (2017/12/29).
PLANEAMIENTO MUNICIPAL VIGENTE	Plan General de Ordenación Urbana, aprobado definitivamente el 14 de diciembre de 2017. Entrada en vigor: BOTHA nº 147 (29/12/2017).
IZAERA	Nahitaezkoa, ondokoek xedatutakoaren arabera: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan eta Lurralde Antolamenduko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 24. artikuluan.
CARÁCTER	Preceptivo según lo establecido en el art. 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el art. 24 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

I. ESPEDIENTEAREN XEDEA ETA
DESKRIBAPENA

2026ko otsailaren 4an "Aramaioko landa-guneen Plan Berezia: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola" espedientea sartu da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Saillean. Espediente hori Aramaioko Udalak bidali du, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak nahitaezko txostena egin dezan, behin betiko zehapena ezarri aurretik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Espedientea Aramaioko Udalak sustatu eta izapidetu du, eta Arabako Plangintza Atalak aztertu behar du. Espedientearen xedea Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta

I. OBJETO, FINES Y DESCRIPCIÓN DEL
EXPEDIENTE

Con fecha de 4 de febrero de 2026 tiene entrada en el Departamento de Vivienda y Agenda Urbana del Gobierno Vasco el expediente de "Plan Especial de los núcleos rurales de Aramaio: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri y Zabola", remitido por el Ayuntamiento de Aramaio con el fin de que se emita, previo a su sanción definitiva, el informe preceptivo por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en virtud de lo dispuesto en el artículo 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

El expediente, promovido y tramitado por el Ayuntamiento de Aramaio y sometido a la consideración de la Sección de Planeamiento de Álava, tiene como objeto el desarrollo





Zabolako landa-guneen garapen xehatua da, guztiak udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak zedarritzen dituenak eta Arabako Foru Aldundiaren landa-guneen inbentarioan sartuta daudenak. Inbentario hori abenduaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren 78/2009 Foru Dekretuaren bidez onartu zen, eta Arabako lurzoru urbanizaezineko landa-guneen inbentarioa behin betiko onartu zuen.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.3 artikulua honela dio hitzez hitz: *“Plangintza orokorrak ez baldin badu landa-guneetarako antolamendu xehakaturik ezarri, udalak, plangintza hori garatze aldera, plan berezi bat onartuko du, eta bertan ezarriko du gune horien antolamendu xehakaturia. Hor, beharrezko diren zehaztapen guztiak egongo dira jasota, batez ere hauek: eraikinak jasotzeko izendatuta dauden finken kokaera; zein finkatan egin daitezkeen eraikuntzak –finka horiek sarbide zuzena izan behar dute lehendik dagoen bide publiko batetik–; eraikuntzen bolumena eta gehienez eduki ditzaketan solairuak –ezin izango dute bi solairu baino gehiago eduki–, eta, horrekin batera, eraikuntzen eta mugakide dituzten sail eta bideen artean egon behar duten tarteen parametroak; orobat, zilegi diren, bateraezin diren eta debekatuta dauden erabileren araubidea ere.”*

Aipatu behar da Aramaioko HAPOk landa-guneei buruzko berariazko gaiak sartzen dituela bere araudian eta, besteak beste, honako hauek mugatzen dituela: Etxebizitza-kopuruaren gehieneko hazkundera, azalera eraikiaren gehieneko gehikuntza, gehieneko solairu kopurua (2), eraikin bakoitzeko gehieneko etxebizitza-kopurua (3) eta mugekiko gutxieneko tartea (5 m). Halaber, dokumentazio grafikoak jasotzen ditu eraikigarriak lirakeen lursailak.

Puntu honetan gogoratu behar da uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartutako EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) bigarren xedapen iragankorra: *“1.- Indarreko plan orokorrak eta arau subsidiarioak zortzi urteetako epean dekretu honetan*

pormenorizado de los núcleos rurales de Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri y Zabola delimitados por el Plan General de Ordenación Urbana del municipio e incluidos todos ellos en el Inventario de núcleos rurales de la Diputación Foral de Álava, aprobado por Decreto Foral 78/2009, del Consejo de Diputados de 1 de diciembre, que aprueba definitivamente el Inventario de los núcleos rurales de suelo no urbanizable de Álava.

El artículo 29.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, literalmente dice: *“Cuando el planeamiento general no contenga una ordenación pormenorizada de los núcleos rurales, en desarrollo del mismo el ayuntamiento establecerá mediante plan especial su detallada ordenación, conteniendo al efecto todas las determinaciones necesarias, y en especial la disposición de las fincas vinculadas a la edificación, las fincas susceptibles de ser construidas, que deberán contar al menos con acceso directo desde una vía pública previamente existente, el volumen edificatorio y el número máximo de alturas, que en ningún caso podrá superar las dos plantas, con expresión de los parámetros de separación de la edificación a los predios colindantes y a los viales así como el régimen de usos permitidos, compatibles y prohibidos.”*

Cabe señalar que el PGOU de Aramaio ya introduce en su Normativa cuestiones específicas sobre los núcleos rurales, limitando, entre otras cuestiones, el incremento máximo del número de viviendas, el incremento máximo de la superficie construida, el número máximo de plantas (2), el número máximo de viviendas por edificio (3) y la separación mínima a los linderos (5 m). Asimismo, su documentación gráfica identifica las parcelas susceptibles de ser construidas.

En este punto cabe recordar la Disposición Transitoria Segunda de las Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV (DOT), aprobadas por Decreto 128/2019, de 30 de julio, la cual señala que *“1.- Los Planes Generales y Normas Subsidiarias vigentes se*

xedatutakora moldatuko dira, eta baita indarreko lurralde plangintzara, lehenengo xedapen iragankorrear ezarritakoarekin bat etorrira, beren berrikuspen integrala erkidegoko hirigintza-legeekin bat etorrira abiatzen dutenean. Moldaketa hori gertatzen ez den bitartean, plangintza orokor horrek eta haren proposamenek indarrean jarraituko dute bertan jasotako baldintzetan". Aramaioko HAPO 2017ko abenduaren 29an onartu zen behin betiko.

adaptarán en el plazo de ocho años a lo dispuesto en el presente Decreto, así como al planeamiento territorial vigente conforme a lo establecido en la disposición transitoria primera cuando inicien su revisión integral de conformidad con la legislación urbanística autonómica. Mientras no se produzca su adaptación, dicho planeamiento general y sus propuestas continuarán vigentes en sus propios términos". El PGOU de Aramaio fue aprobado definitivamente el 29 de diciembre de 2017.

Plan Bereziak, beste dokumentu batzuek gain, Araudi Orokor bat dauka, gune bakoitzeko Araudi Espezifiko bat eta horietako bakoitzaren plano batzuk jasotzen ditu: kokapen-planoa, kalifikazio orokorra, lurzatiak eta erabilerak, azpiegiturak (elektrizitatea eta komunikazioak, ur-hornidura eta – saneamendua, eta gasa eta bideak), antolamendu xehatua, eta eraikitze eta erabiltze baldintzak. Zehazki, horietan aipatzen dira eraikuntza berriko etxebizitzak hartuko dituzten lurzati hutsak eta eraikiak, solairu kopurua eta altuerak adierazten dituzten sekzio-ereduak, eraikinen gutxieneko tartekak, eta erabilerak

El Plan Especial contiene, entre otros documentos, una Normativa General, otra Particular para cada núcleo y una serie de planos de cada uno de ellos: plano de situación, calificación global, parcelario y usos, infraestructuras (electricidad y comunicaciones, abastecimiento y saneamiento de agua, y gas y viario), ordenación pormenorizada, y condiciones de edificación y uso. En particular, en ellos se señalan las parcelas vacantes y edificadas receptoras de viviendas de nueva construcción, secciones tipo con expresión del número de plantas y alturas, retiros mínimos de las edificaciones, y usos.

Araudi Orokorrak, besteak beste, konposizioari, materialei, tarteei eta gutxieneko atzerapenei, lursailen erabilera araubideari eta egikaritze-araubideari buruzko oinarritzko irizpideak jasotzen ditu.

La Normativa General introduce, entre otras cuestiones, criterios básicos de composición, materiales, separaciones y retiros mínimos, régimen de usos de las parcelas y régimen de ejecución.

Araudi Orokorrean ere, egungo baserrien eta horiei lotutako lursailen hirigintza-araubideari buruzko 14. artikuluan, etxebizitzak azpibanaketa arautzen da 3. atalean, eta gehienez 2 edo gaur egun 2 badaude gehienez 4 ezartzen dira, bi kasuetan gutxieneko azalera betez.

También en la Normativa General, en el artículo 14 relativo al régimen urbanístico de los caseríos existentes y parcelas vinculadas, se regula en su apartado 3 la subdivisión de viviendas, señalando un máximo de 2 o un máximo de 4 si en la actualidad existen 2, en ambos casos cumpliendo con una superficie mínima.

Artikulu horretan bertan, 4. atalean, erabilera osagarrietarako eraikin berri bat ezartzea baimentzen da, sestra gaineko 15 m²-ko gehiengo eraikigarritasunarekin.

En ese mismo artículo, en el apartado 4, se autoriza la implantación de una única nueva edificación destinada a usos auxiliares, con una edificabilidad máxima sobre rasante de 15 m².

Era berean, 15. artikuluan, baserriak izateko baldintzak betezen ez dituzten egungo eraikuntzen eta horiei lotutako lursailen hirigintza-araubideari buruzkoan, eraikin horiei

Asimismo, en el artículo 15, relativo al régimen urbanístico de las edificaciones y parcelas vinculadas existentes que no reúnen las condiciones para ser caseríos, se autoriza la



lotutako lurzatieetan erabilera osagarriari lotutako eraikin bakarra ezartzeko baimena ematen da, 14. artikuluko 5. atalean araututako baldintzekin, araudian existitzen ez den atalean.

implantación de una única edificación vinculada a usos auxiliares en las parcelas vinculadas a dichas edificaciones, con las condiciones reguladas en el apartado 5 del artículo 14, apartado inexistente en la normativa.

Aurrekoarekin lotuta, aipatzekoa da Araudi Orokorrean aldeak daudela testuan dokumentuaren gaztelaniazko eta euskarazko bertsioren artean.

En relación con lo anterior cabe señalar que en la Normativa General se advierten diferencias en el texto entre la versión del documento en castellano y en euskera.

Era berean, araudi horretan lehenetik dauden eraikinak handitzea aipatzen da, inolako handitzerik ez dagoenean.

Asimismo, se hace mención en dicha normativa de la ampliación de las edificaciones existentes, cuando no es posible ninguna ampliación.

Horrez gain, dokumentuan zehar "premiatzko neurriari buruzko 108/2008 Dekretua" aipatzen da, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiatzko neurriari buruzkoa, aipatu nahi dela ulertzen denean.

Además, a lo largo del documento se hace referencia al "Decreto 108/2008, de medidas urgentes", cuando se entiende que se quiere mencionar el Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Arau Partikularrak landa-gune bakoitzaren fitxek osatzen dituzte. Fitxa bakoitzak informazio zati bat eta antolamendu zait bat ditu, eta bertan "zuzkidurak besteko erabiletara bideratutako azpieroemuen hirigintza-arabidea" jasotzen da.

Las Normas Particulares quedan constituidas por las fichas de cada núcleo rural. Cada ficha tiene una parte de información y otra de ordenación, donde se recoge el "régimen urbanístico del subámbito destinado a usos no dotacionales".

Landa-gune bakoitzaren analisisa zehaztuz:

Particularizando el análisis para cada núcleo rural:

a) Arexola

a) Arexola

Arexola udalerriaren erdialdean dago, eta A-4023 errepidetik du sarbidea. HAPOren datuen arabera, landa-gunearen eremuak 30.420,35 m²-ko azalera du. Etxebizitza kopuruaren gehieneko hazkundera 4 eta eraikitako azalerarena 2.791 m²-koa izango dira.

Arexola está situado en la zona centro del municipio, con acceso desde la A-4023. Según los datos del PGOU, el ámbito del núcleo rural tiene una superficie de 30.420,35 m². El incremento máximo del número de viviendas es de 4 y de la superficie construida 2.791 m².

Plan Bereziak planteatzen du etxebizitza kopurua gehienez 4 handitzea eta eraikitako azalera gehienez 1.440 m² handitzea.

El Plan Especial plantea un incremento máximo del número de viviendas de 4 y un incremento máximo de la superficie construida de 1.440 m².

b) Arriola

b) Arriola

Arriola udalerriaren erdialdean dago, eta A-4023 errepidetik du sarbidea. HAPOren datuen arabera, landa-gunearen eremuak 23.391,25

Arriola está situado en la zona centro del municipio, con acceso desde la A-4023. Según los datos del PGOU, el ámbito del núcleo rural

m²-ko azalera du. Etxebizitza kopuruaren gehieneko hazkundera 4 eta eraikitako azalerarena 2.469,50 m²-koa izango dira.

tiene una superficie de 23.391,25 m². El incremento máximo del número de viviendas es de 4 y de la superficie construida 2.469,50 m².

Plan Bereziak planteatzen du etxebizitza kopurua gehienez 4 handitzea eta eraikitako azalera gehienez 1.440 m² handitzea.

El Plan Especial plantea un incremento máximo del número de viviendas de 4 y un incremento máximo de la superficie construida de 1.440 m².

c) Barajuen

c) Barajuen

Barajuen udalerrriaren ekialdean dago, eta A-4022 errepidetik du sarbidea. HAPOn datuen arabera, landa-gunearen eremuak 58.349,40 m²-ko azalera du. Etxebizitza kopuruaren gehieneko hazkundera 2 eta eraikitako azalerarena 3.563 m²-koa izango dira.

Barajuen está situado en la zona este del municipio, con acceso desde la A-4022. Según los datos del PGOU, el ámbito del núcleo rural tiene una superficie de 58.349,40 m². El incremento máximo del número de viviendas es de 2 y de la superficie construida 3.563 m².

Plan Bereziak planteatzen du etxebizitza kopurua gehienez 2 handitzea eta eraikitako azalera gehienez 720 m² handitzea.

El Plan Especial plantea un incremento máximo del número de viviendas de 2 y un incremento máximo de la superficie construida de 720 m².

d) Suña

d) Suña

Suña udalerrriaren ekialdean dago, eta A-3920 errepidetik du sarbidea. HAPOn datuen arabera, landa-gunearen eremuak 37.636,72 m²-ko azalera du. Etxebizitza kopuruaren gehieneko hazkundera 5 eta eraikitako azalerarena 3.428,50 m²-koa izango dira.

Suña está situado en la zona este del municipio, con acceso desde la A-3920. Según los datos del PGOU, el ámbito del núcleo rural tiene una superficie de 37.636,72 m². El incremento máximo del número de viviendas es de 5 y de la superficie construida 3.428,50 m².

Plan Bereziak planteatzen du etxebizitza kopurua gehienez 5 handitzea eta eraikitako azalera gehienez 1.800 m² handitzea.

El Plan Especial plantea un incremento máximo del número de viviendas de 5 y un incremento máximo de la superficie construida de 1.800 m².

e) Uribarri

e) Uribarri

Uribarri udalerrriaren erdialdean dago, eta A-4024 errepidetik du sarbidea. HAPOn datuen arabera, landa-gunearen eremuak 21.058,63 m²-ko azalera du. Etxebizitza kopuruaren gehieneko hazkundera 3 eta eraikitako azalerarena 2.073,50 m²-koa izango dira.

Uribarri está situado en la zona centro del municipio, con acceso desde la A-4024. Según los datos del PGOU, el ámbito del núcleo rural tiene una superficie de 21.058,63 m². El incremento máximo del número de viviendas es de 3 y de la superficie construida 2.073,50 m².

Plan Bereziak planteatzen du etxebizitza kopurua gehienez 3 handitzea eta eraikitako azalera gehienez 1.800 m² handitzea.

El Plan Especial plantea un incremento máximo del número de viviendas de 3 y un incremento máximo de la superficie construida de 1.800 m².

f) Zabola

f) Zabola

Zabola udalerrriaren erdi-ekialdean dago, eta A-4021 errepidetik du sarbidea. HAPOn datuen

Zabola está situado en la zona centro-este del municipio, con acceso desde la A-4021. Según

arabera, landa-gunearen eremuak 56.342,19 m²-ko azalera du. Etxebizitza kopuruaren gehieneko hazkundea 5 eta eraikitako azalera 4.613 m²-koa izango dira.

Plan Bereziak planteatzen du etxebizitza kopurua gehienez 5 handitzea eta eraikitako azalera gehienez 1.800 m² handitzea.

II. ESKUMENAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen egitekoak, osaera eta funtzionamendu-araubidea ezartzen dituen irailaren 9ko 157/2008 Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzak eskumena du Arabako Hirigintza Plangintzako Sekzioari aurkeztu zaion espediente hau prestatu eta hari buruzko txostena proposatzeko.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretuaren 10.3.f artikuluan Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzari esleitutako egitekoak aplikatuz, txosten tekniko hau Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzari espediente honen inguruan behar duen laguntza teknikoa emateko idatzi da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari aurkeztu beharreko txosten-proposamena prestatzeko.

III. ESPEDIENTEAREN IZAPIDETZEA

Espedientea Aramaioko Udalak izapidetu du, honako oinarrizko administrazio-egintza hauei jarraiki:

- Behin betiko dokumentua eginda:
 - o Hasierako onarpena: Udaleko Osoko bilkuraren 2025eko urtarrilaren 22ko akordioa.

IV. OHAR TEKNIKOAK

Izapidetzen ari den espedienteak Aramaioko HAPON landa-gune gisa mugatutako eremu hauen garapen xehatua agintzen du: Arexola,

los datos del PGOU, el ámbito del núcleo rural tiene una superficie de 56.342,19 m². El incremento máximo del número de viviendas es de 5 y de la superficie construida 4.613 m².

El Plan Especial plantea un incremento máximo del número de viviendas de 5 y un incremento máximo de la superficie construida de 1.800 m².

II. COMPETENCIAS

De conformidad con lo establecido en el artículo 7.2 del Decreto 157/2008, de 9 de septiembre, por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, la Dirección de Planificación Territorial es competente para la preparación y propuesta de informe del presente expediente sometido a la consideración de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava.

En aplicación de las funciones atribuidas a la Dirección de Planificación Territorial en el artículo 10.3.f del Decreto 411/2024, de 3 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, el presente informe técnico se redacta con el fin de proporcionar el apoyo técnico necesario a la Dirección de Planificación Territorial en relación al presente expediente, para la preparación de la citada propuesta de informe a someter a la consideración de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

III. TRAMITACIÓN DEL EXPEDIENTE

El expediente ha sido tramitado por el Ayuntamiento de Aramaio según los siguientes actos administrativos fundamentales:

- Redactado el documento definitivo:
 - o Aprobación inicial: Acuerdo Plenario de 22 de enero de 2025.

IV. CONSIDERACIONES TÉCNICAS

El expediente en tramitación ordena el desarrollo pormenorizado de los siguientes ámbitos delimitados como núcleos rurales en el



Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola. Dokumentuak HAPOn finkatutako egiturazko zehaztapenak betetzen ditu.

PGOU de Aramaio: Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri y Zabola. El documento cumple con las determinaciones estructurales fijadas en el PGOU.

Adierazi behar da, nahiz eta araudiaren atal batzuetan jasota dagoen lehendik dauden eraikinak ezin direla handitu, testuan oraindik ere aipatzen dira handitze horiek. Horregatik, dauden eraikinak handitzeko aukerari buruzko edozein aipamen ezabatu beharko da dokumentuan.

Se debe señalar que, aunque en algunos apartados de la normativa ya se recoge que las edificaciones existentes no pueden ser ampliadas, a lo largo del texto todavía se hace referencia a dichas ampliaciones. Por ello, se deberá eliminar cualquier mención en el documento a la posibilidad de ampliación de las edificaciones existentes.

Araudi Orokorrean, dokumentuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen arteko aldeak ikusten dira testuan. Adibidez, 10. artikuluko azken paragrafoa falta da euskarazko bertsioan; 14. artikuluan inkongruentziak daude artikuluko horren hainbat atalean. Horregatik, erabat berrikusi beharko da dokumentu hau.

En la Normativa General se advierten diferencias en el texto entre la versión del documento en euskera y castellano. Por ejemplo, en la versión en euskera falta el último párrafo del artículo 10; en el artículo 14 hay incongruencias en varias partes del mismo. Por ello, se deberá revisar completamente este documento.

Horrez gain, dokumentuan zehar "premiatzko neurriei buruzko 108/2008 Dekretua" aipatzen da, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiatzko neurriei buruzkoa, aipatu nahi dela ulertzen denean. Horregatik, aipamen hauek zuzendu beharko dira.

Además, a lo largo del documento se hace referencia al "Decreto 108/2008, de medidas urgentes", cuando se entiende que se quiere mencionar el Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Por ello, se deberán corregir estas referencias.

Araudi partikularraren dokumentuan, Suñako landa-guneari buruzko IV.2.1.1 atalean, euskarazko bertsioan azken paragrafoa falta da. Uribarriko landa-gunearien kasuan, 1.800 m²-ko gehieneko eraikigarritasuna ezartzen da, etxebizitza kopuruaren gehieneko hazkundera 3 denean. Beraz, Plan Bereziaren Araudi Orokorren 11.3 artikulua betez, non ezartzen baita etxebizitza berria hartzen duen lurzati bakoitzaren gehieneko eraikigarritasuna 360 m²-koa dela, landa-gunearien eraikigarritasunaren gehieneko gehikuntza 1.080 m²-ra mugatu beharko da, adierazitako 1.800 m²-en ordean.

En el documento de la Normativa Particular, en el apartado IV.2.1.1 relativo al núcleo rural de Suña, falta el último párrafo en la versión en euskera. En el caso del núcleo rural de Uribarri, se fija una edificabilidad máxima de 1.800 m² cuando el incremento máximo del número de viviendas es 3. Por lo tanto, en cumplimiento del artículo 11.3 de la Normativa General del Plan Especial, donde se fija que la edificabilidad máxima de cada parcela receptora de nueva vivienda es de 360 m², se deberá limitar el incremento máximo de la edificabilidad del núcleo rural a 1.080 m², en lugar de los 1.800 m² señalados.

V. ONDORIOAK

V. CONCLUSIONES

